

GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK, 2016KO EKAINAREN 14AN LEHENENGO DEIALDIAN, EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.	ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 14 DE JUNIO DE 2016.
<u>BERTARATUAK</u>	<u>ASISTENTES</u>
<u>LEHENDAKARIA</u>	<u>PRESIDENTE</u>

Keltse Eiguren Alberdi And.

<u>BATZARKIDEAK</u>	<u>VOCALÉS</u>
----------------------------	-----------------------

Joseba Arregui Martínez Jn.
Elena Coria Yanguas And.
Koldo Iturbe Mendilibar Jn.
Jose Luis Landa Arteche Jn.

<u>IDAZKARI NAGUSIA</u>	<u>SECRETARIO GENERAL</u>
--------------------------------	----------------------------------

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Getxo Udaletxean, bi mila eta hamaseiko ekainaren hamalauan, lehenengo alkatordea, Keltse Eiguren Alberdi andrea bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotzietz gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

Lehendakariak, legeak eskatzen duen kide- kopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza:

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a catorce de junio de dos mil dieciséis, y bajo la presidencia de la primera teniente al alcalde, dña.Keltse Eiguren Alberdi, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria Hernández Soto.

La presidenta, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

225.- 2016KO EKAINAREN 7AN
EGINDAKO OHIKO BILERAKO
AKTA ONESTEIA.

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2016ko ekainaren 7ko bilerakoa, hain zuzen.

OGASUNA, KONTUAK,
EKONOMIA SUSTAPENA, GIZA
BALIABIDEAK, GAZTERIA ETA
EUSKARA

226.- BIHOTZKOEN AURKAKO
TRESNERIAREN HORNIKETA
ESLEITZEKO HASITAKO
PROZEDURA ESLEITU GABE
UZTEA.

Kontratazio, Informazio Sistema eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki zen:

BAKARRA.- GETXOKO UDALERAKO BIHOTZA BABESTEKO ZENBAIT EKIPAMENDUREN HORNIDURA adjudikatzeke publizitaterik gabeko prozedura negoziatua HUTSIK geratu dela adieraztea, lizitatzailleek ez dutelako proposamenik aurkeztu.

227.- ESKOLA-ORDUZ KANPOKO
ANTZERKI-JARDUERA
IRAKASTEKO ETA ANTZERKI-
JARDUNALDIA ANTOLATZEKO
ZERBITZUA ESLEITZEKO
ESPEDIENTEIA HASTEIA.

Kontratazio, Informazio Sistema eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki zen:

225.- APROBACIÓN DEL ACTA DE
LA ANTERIOR SESIÓN
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 7
DE JUNIO DE 2016.

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 7 de junio de 2016.

HACIENDA, CUENTAS,
PROMOCIÓN ECONÓMICA,
RECURSOS HUMANOS, JUVENTUD
Y EUSKERA

226.- DECLARAR DESIERTO EL
PROCEDIMIENTO PARA LA
ADJUDICACIÓN DEL SUMINISTRO
DE VARIOS EQUIPOS DE
CARDIPROTECCIÓN.

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

ÚNICO.- Declarar DESIERTO el procedimiento negociado sin publicidad, para la adjudicación del SUMINISTRO DE VARIOS EQUIPOS DE CARDIOPROTECCIÓN PARA EL AYUNTAMIENTO DE GETXO, dado que ningún licitador ha presentado proposición al mismo.

227.- INICIO DEL EXPEDIENTE
PARA LA ADJUDICACIÓN DEL
SERVICIO PARA ACTIVIDADES
EXTRAESCOLARES DE TEATRO Y
ORGANIZAR LA JORNADA DE
TEATRO ESCOLAR.

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

LEHENENGOA: Arauzko izapidea hasteko baimena ematea ESKOLAKO ANTZERKI-JARDUNALDIA ANTOLATU ETA ANTZERKI-ESKOLAK EMATEKO ZERBITZUA prozedura irekian adjudikatzeko; haren gehieneko aurrekontua 120.000 euro izango da (BEZaren % 21 barne) kontratuak irauten duen bi urteetarako.

Kontratuak bi ikasturteko iraupena izango du: 2016-2017 eta 2017-2018. Bi denboraldiz segidan luzatu ahal izango da, denboraldi bakoitza ikasturte batekoa izanik. Kontratuaren iraupena, guztira, ezin da izan 4 (LAU) URTE baino handiagoa. Luzapenek Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 23. artikuluan xedatutakoa beteko dute, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartua; kontratazio-organoak berariaz erabakiko du, eta adjudikaziodunarentzat nahitaezkoak izango dira.

Kontratuak 198.347,12 euroko balioa izango du.

BIGARRENA: Administrazioko kontratazioa arautu behar duten administrazio baldintza zehatzen eta teknikoen pleguak onartzea.

HIRUGARRENA: Arauzko izapidea hasteko baimena ematea aipatutako zerbitzua prozedura irekian adjudikatzeko.

LAUGARRENA: Aipatutako zerbitzuaren kontrataziotik ondorioztatutako betebeharrei aurre egiteko beharrezko gastua, 120.000 euro, baimentzea.

PRIMERO: Autorizar el inicio de la tramitación reglamentaria para la adjudicación, mediante Procedimiento Abierto, del SERVICIO PARA IMPARTIR CLASES DE TEATRO ESCOLAR Y ORGANIZAR LA JORNADA DE TEATRO ESCOLAR, cuyo presupuesto máximo estimado asciende a 120.000 euros, 21% de I.V.A. incluido, durante los dos años de duración del contrato.

La duración del contrato será de dos cursos escolares, 2016-2017 y 2017-2018. El contrato será susceptible de prórroga por dos períodos sucesivos de un curso escolar cada uno de ellos, sin que pueda la duración total del contrato exceder de 4 cursos escolares. Las prórrogas se acomodarán a lo dispuesto en el artículo 23 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, acordándose de forma expresa por el Órgano de Contratación y siendo obligatorias para el adjudicatario.

El valor estimado del contrato asciende a 198.347,12 euros.

SEGUNDO: Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa.

TERCERO: Autorizar el inicio de tramitación reglamentaria para la adjudicación, por el Procedimiento Abierto, del servicio de referencia.

CUARTO: Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación del servicio de referencia, por importe de 120.000 euros.

**228.- ROMOKO KULTURA ETXEKO
EKITALDI-ARETOARENTZAT
EKIPAMENDU ESZENIKOAREN
HORNIDURA ESLEITZEKO
ESPEDIENTEA HASTEA.**

Kontratazio, Informazio Sistema eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki zen:

LEHENENGOA: Arauzko izapidetzearen hasiera baimentzea, ROMOKO KULTUR ETXEKO ARETO NAGUSIRAKO EKIPAMENDU ESZENIKOA prozedura irekian hornitzeko.

Kontratua gauzatzeko epea lau urtekoa izango da, kontratua sinatzen denetik aurrera zenbatuta.

Kontratuaren prezioa unitate-prezioetan adierazi da. Kontratu honetarako gehieneko aurrekontua 175.996,92 eurokoa izango da, BEZaren % 21 barne, eta loteka honako era honetan xehatuko da:

• 1. LOTEA: MAKINERIA, EGITURA ETA SOINEKO ESZENIKOA: 48.294,73 (39.913+8.381,73)

• 2. LOTEA: ARGIZTAPEN ESZENIKOA: 38.153,72 (31.532+6.621,72)

• 3. LOTEA: SOINUA ETA PROIEKZIO-SISTEMAK 89.548,47 (74.007+15.541,47)

BIGARRENA: Administrazioa kontratazioa arautu behar duten

228.- INICIO DEL EXPEDIENTE PARA LA ADJUDICACIÓN DEL SUMINISTRO DE EQUIPAMIENTO ESCÉNICO PARA EL SALÓN DE ACTOS DE LA KULTUR ETXEA DE ROMO.

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Autorizar el inicio de la tramitación reglamentaria para la adjudicación, mediante Procedimiento Abierto, del SUMINISTRO DE EQUIPAMIENTO ESCÉNICO PARA EL SALÓN DE ACTOS DE LA KULTUR ETXEA DE ROMO.

El plazo de ejecución del contrato será de cuatro años, a contar desde la firma del mismo.

Se trata de un contrato cuyo precio se formula en términos de precios unitarios. El presupuesto máximo destinado a este contrato, IVA incluido, será de 175.996,92 euros, 21% de I.V.A. incluido, siendo el desglose por lotes el siguiente:

• LOTE 1: MAQUINARIA, ESTRUCTURA Y VESTIDO ESCENICO: 48.294,73 (39.913+8.381,73)

• LOTE 2: ILUMINACION ESCENICA: 38.153,72 (31.532+6.621,72)

• LOTE 3: SONIDO Y SISTEMAS DE PROYECCION: 89.548,47 (74.007+15.541,47)

SEGUNDO: Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares

administrazio baldintza zehatzen eta teknikoaren plegiak onartzea.

HIRUGARRENA: Aipatutako zerbitzuaren kontrataziotik sortutako betebeharreari aurre egiteko beharrezko gastua baimentzea, gehienez 175.996,92 eurokoa.

229.- UDALERRIKO KANPOALDEKO ARGITERIA PUBLIKOAREN INSTALAZIOAK ARTATZEKO ZERBITZUAREN PREZIOAK BERRIKUSITA ONESTEKO ETA LUZATZEA.

Kontratazio, Informazio Sistema eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki zen:

LEHENENGOA: ELECTRICAS ASMOTUR URIARTE, S.L. izeneko sozietatearen (IFK: B4883341-2) prezioen berrikuspena onestea, GETXO UDALERRIKO KANPO ARGIZTAPEN PUBLIKOKO INSTALAZIOAK MANTENTZEKO ZERBITZUARI dagokionez, ondorioak 2015/08/14tik aurrera izanik, % 0,17ko igoyerarekin eguneratuta (2014ko uztailetik 2015eko uztaileira Euskal Autonomia Erkidegoko KPIk izandako aldakuntzaren 0,2aren % 85); horrenbestez, zenbateko eguneratua 348.818,56 euro gehi 73.251,90 euro da (% 21eko BEZari dagokiona).

BIGARRENA: ELECTRICAS ASMOTUR URIARTE, S.L. sozietatearekin (IFK: B4883341-2) sinatutako GETXO UDALERRIKO KANPO ARGIZTAPEN PUBLIKOKO INSTALAZIOAK MANTENTZEKO ZERBITZUA kontratuaren indarraldia

y Técnicas que han de regir la contratación administrativa.

TERCERO: Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación del suministro de referencia, por importe máximo de 175.996,92 euros.

229.- APROBACIÓN DE LA REVISIÓN DE PRECIOS Y PRÓRROGA DEL SERVICIO DE MANTENIMIENTO DE LAS INSTALACIONES DE ALUMBRADO PÚBLICO EXTERIOR DEL MUNICIPIO.

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Aprobar la revisión de precios a la razón social ELECTRICAS ASMOTUR URIARTE, S.L., con C.I.F.: B4883341-2 para el SERVICIO DE MANTENIMIENTO DE LAS INSTALACIONES DE ALUMBRADO PÚBLICO EXTERIOR DEL MUNICIPIO DE GETXO, con efectos a partir del 14/08/2015, actualizado con un incremento del 0,17% (85% de 0,2 variación experimentada por el IPC de la Comunidad Autónoma del País Vasco desde el mes de julio de 2014 al mes de julio de 2015), resultando un importe actualizado de 348.818,56.-€ más 73.251,90.-euros correspondiente al 21% de I.V.A.

SEGUNDO: Prorrogar durante UN AÑO (Primera prórroga), desde el 14/08/2016 al 13/08/2017, la vigencia del contrato suscrito con la razón social ELECTRICAS ASMOTUR URIARTE, S.L., con C.I.F.: B4883341-2 del SERVICIO DE MANTENIMIENTO DE

URTEBETEZ luzatzea (lehen luzapena), 2016/08/14tik 2017/08/13ra; horrenbestez, zenbatekoa 348.818,56 euro/urte gehi 73.251,90 euro da (% 21eko BEZari dagokiona).

HIRUGARRENA: Beharrezko gastua baimendu eta xedatzea, 592 euro gehi % 21eko BEZari dagozkion 124,32 euroko zenbatekoduna, GETXO UDALERRIKO KANPO ARGIZTAPEN PUBLIKOKO INSTALAZIOAK MANTENTZEKO ZERBITZUAREN prezioen eguneratzeari aurre egiteko.

LAUGARRENA: GETXO UDALERRIKO KANPO ARGIZTAPEN PUBLIKOKO INSTALAZIOAK MANTENTZEKO ZERBITZUA 2016-08-14tik 2017-08-13ra luzatzeari aurre egiteko behar den gastua baimendu eta xedatzea, 348.818,56 euro gehi % 21eko BEZari dagozkion 73.251,90 euroko zenbatekoduna.

230.- GETXOKO UDALARENTZAKO ETA JESUSEN BIHOTZA UDAL EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOARENTZAKO GARBIKETA-PRODUKTUEN HORNIDURAKO PREZIOAK BERRIKUSITA ONESTEKO ETA LUZATZEA.

Kontratazio, Informazio Sistema eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki zen:

LEHENENGOA: URBEGI SERVICIOS AUXILIARES, S.L.U. (IFK: B-95221891) izeneko sozietatearen prezioen berrikuspena onestea GETXOKO

LAS INSTALACIONES DE ALUMBRADO PÚBLICO EXTERIOR DEL MUNICIPIO DE GETXO por un importe anual de 348.818,56.-€ más 73.251,90.-euros correspondiente al 21% de I.V.A.

TERCERO: Autorizar y disponer el gasto necesario por importe de 592.-€ más 124,32.-€ correspondiente al 21% de I.V.A, para hacer frente a la revisión de precios del SERVICIO DE MANTENIMIENTO DE LAS INSTALACIONES DE ALUMBRADO PÚBLICO EXTERIOR DEL MUNICIPIO DE GETXO

CUARTO: Autorizar y disponer el gasto necesario, para hacer frente a la prórroga del SERVICIO DE MANTENIMIENTO DE LAS INSTALACIONES DE ALUMBRADO PÚBLICO EXTERIOR DEL MUNICIPIO DE GETXO desde el 14/08/2016 al 13/08/2017, por importe de 348.818,56.-€ más 73.251,90.-euros correspondiente al 21% de I.V.A.

230.- APROBACIÓN DE LA REVISIÓN DE PRECIOS Y PRÓRROGA DEL SUMINISTRO DE PRODUCTOS DE LIMPIEZA PARA EL AYUNTAMIENTO Y EL ORGANISMO AUTÓNOMO RESIDENCIA MUNICIPAL SAGRADO CORAZÓN.

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Aprobar la revisión de precios a la razón social "URBEGI SERVICIOS AUXILIARES, S.L.U.", con C.I.F.: B-95221891 a partir del día

UDALARENTZAT ETA JESUSEN
BIHOTZA UDAL EGOITZA
ERAKUNDE
AUTONOMOARENTZAT
GARBIKETA PRODUKTUAK
HORNITZEKO, 2015-09-10etik aurrera,
-% 0,17ko murrizketarekin bat etorriz
(Euskal Autonomia Erkidegoko KPIan
2014ko abuztutik 2015eko abuztura
izandako aldakuntzaren -% 0,2aren %
85ari dagokiona), adjudikaziodunaren
eskaintza ekonomikoan jasotako
unitateko prezioei aplikatuko zaiena.
Betiere, I. BLOKERAKO (Getxoko
Udala) urteko gehieneko aurrekontua
13.212,21 eurokoa izango da, gehi
BEZaren % 21ari dagozkion 2.774,56
euroak.

BIGARRENA: URBEGI SERVICIOS
AUXILIARES, S.L.U. enpresarekin (IFK:
B-95221891) sinatutako kontratuaren
indarraldia 2016-09-10etik 2017-09-09ra
luzatzea, GETXOKO
UDALARENTZAT ETA JESUSEN
BIHOTZA UDAL EGOITZA
ERAKUNDE
AUTONOMOARENTZAT
GARBIKETA PRODUKTUAK
HORNITZEKO, eskaintza
ekonomikoan eman dituen aleko
prezioetan.

I. BLOKERAKO (Getxoko Udala)
urteko gehieneko aurrekontua
13.212,21.-€ izango da, gehi 2.774,56.-€,
BEZaren % 21.

HIRUGARRENA: 2015/09/10etik
2016/09/09ra onartutako prezioen
beheranzko berrikuspenak xedatutako
eta baimendutako gastuan murrizketa
dakar, 22,50 eurokoa, % 21eko BEZari
dagozkion 4,73 euroak barne.

10/09/2015 para el el BLOQUE I
(Ayuntamiento de Getxo) del
SUMINISTRO DE PRODUCTOS DE
LIMPIEZA PARA EL
AYUNTAMIENTO DE GETXO Y EL
ORGANISMO AUTÓNOMO
RESIDENCIA MUNICIPAL SAGRADO
CORAZÓN de acuerdo con la
disminución del -0,17%
(correspondiente al 85% de -0,2%
variación experimentada por el IPC de
la Comunidad Autónoma Vasca desde
el mes de agosto de 2014 al mes de
agosto de 2015), que se aplicará a los
precios unitarios recogidos en la oferta
económica del adjudicatario, si bien el
presupuesto máximo anual para el
BLOQUE I (Ayuntamiento de Getxo)
será de 13.212,21.-€ más 2.774,56.-€ del
21% de I.V.A.

SEGUNDO: Prorrogar desde el
10/09/2016 al 09/09/2017 (segunda
prórroga), la vigencia del contrato
suscrito con la mercantil "URBEGI
SERVICIOS AUXILIARES, S.L.U.", con
C.I.F.: B-95221891 para el SUMINISTRO
DE PRODUCTOS DE LIMPIEZA
PARA EL AYUNTAMIENTO DE
GETXO Y EL ORGANISMO
AUTÓNOMO RESIDENCIA
MUNICIPAL SAGRADO CORAZÓN
por los precios unitarios recogidos en
su oferta económica minorados en un -
0,17%

El presupuesto máximo anual para
BLOQUE I (Ayuntamiento de Getxo)
será de 13.212,21.-€ más 2.774,56.-€ del
21% de I.V.A.

TERCERO: La revisión de precios a la
baja aprobada desde el 10/09/2015
hasta el 09/09/2016 implica una
minoración en el gasto dispuesto y
autorizado en un importe de 22,50.-
euros, más 4,73.-€ correspondiente al

LAUGARRENA: Gehienez 13.212,21 euroko beharrezko gastua baimendu eta prestatzea, gehi BEZaren % 21ari dagozkion 2.774,56 euro, aipatutako luzapenari aurre egiteko.

231.- LOS CHOPOS ETORBIDEKO OINEZKOEN PASABIDEETAKO ARGITERIA ERREPARATZEKO PROIEKTUA ONESTEA, HALA NOLA ERIBITARTE, SANTA EUGENIA, BIDEZABAL, SARRI, JATA ETA MUGARRA KALEETAKO ARGITERIA PUBLIKOA HOBETZEKO ETA EZARTZEKO; BAI HALABER OBRAK ESLEITZEKO ESPEDIENTEA HASI, BALDINTZA-AGIRIAK ONETSI ETA GASTUA EGITEA BAIMENTZEA.

Kontratazio, Informazio Sistema eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki zen:

LEHENENGOA: MAKALETA ETORBIDEKO OINEZKOEN PASABIDEAREN ARGIZTAPENA SENDOTZEKO ETA ERREBITARTE, SANTA EUGENIA, BIDEZABAL, SARRIA, JATA ETA MUGARRA KALEETAKO ARGIZTAPEN PUBLIKOAREN INSTALAZIOA HOBETZEKO lanak egiteko obren proiektua udaleko ingeniari teknikoa den Roberto Novalesek onestea; proiektuaren barruan memoria, planoak, baldintza-pleguak eta aurrekontu orokorra ditu, 147.154,32 eurotan, BEZa barne. Obren iraupena 20 astekoa da, zuinketa egiaztatzeak akta sinatzen denetik aurrera zenbatuta.

21% I.V.A. incluido.

CUARTO: Autorizar y disponer el gasto necesario por un importe máximo total de 13.212,21.-€ más 2.774,56.-€ correspondiente al 21% de I.V.A., necesario para hacer frente a la citada prórroga.

231.- APROBACIÓN DEL PROYECTO DE OBRAS DE REFUERZO DE LA ILUMINACIÓN DE PASOS DE PEATONES EN LA AVDA. LOS CHOPOS Y MEJORA E INSTALACIÓN DEL ALUMBRADO PÚBLICO EN LAS CALLES ERIBITARTE, SANTA EUGENIA, BIDEZABAL, SARRI, JATA Y MUGARRA, INICIAR EL EXPEDIENTE DE ADJUDICACIÓN, APROBAR PLIEGOS Y AUTORIZAR EL GASTO.

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Aprobar el proyecto de obra para la ejecución de los trabajos de REFUERZO DE LA ILUMINACIÓN DE PASOS DE PEATONES EN LA AVDA. LOS CHOPOS Y MEJORA E INSTALACIÓN DEL ALUMBRADO PÚBLICO EN LAS CALLES ERIBITARTE, SANTA EUGENIA, BIDEZABAL, SARRI, JATA Y MUGARRA, por el Ingeniero técnico municipal, Roberto Novales, comprensivo de Memoria, Planos, Pliegos de Condiciones y Presupuesto General por importe de 147.154,32 euros, I.V.A. incluido, siendo su plazo base de duración, de 20 semanas, a contar desde la suscripción del Acta de Comprobación del Replanteo.

BIGARRENA: Administrazioa arautu behar duten administrazio baldintza zehatzen eta teknikoaren pleguak onartzea.

HIRUGARRENA: Prozedura irekia deitzea aipaturako obrak adjudikatzeko.

LAUGARRENA: Obra horiek kontratatzeak dakartzen betebeharrei aurre egiteko behar den gastua baimentzea, 147.154,32 eurotan.

SEGUNDO: Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa.

TERCERO: Convocar Procedimiento Abierto para la adjudicación de las referidas obras.

CUARTO: Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación de las obras de referencencia, por importe de 147.154,32 euros.

232.- ARTXIBO-KUTXA ZINTADUN AZALEZTATUAK HORNITZEKO ESPARRU-AKORDIOTIK SORTUTAKO KONTRATUAK EGITEAGATIK ENPRESA HAUTATZEA.

232.- SELECCIÓN DE LA EMPRESA PARA LA CELEBRACIÓN DE LOS CONTRATO DERIVADOS DEL ACUERDO MARCO PARA EL SUMINISTRO DE CAJAS DE ARCHIVO CON CINTAS Y ENCUADERNACIÓN.

Kontratazio, Informazio Sistema eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako hau erabaki zen:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

LEHENENGOA: "FUNDACIÓN ERAGINTZA" enpresa (IFK: G-48491872) AUKERATZEA, ENPRESEK BEREN PLANTILLAN DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK IZATEA SUSTATUZ ETA ENPRESABURU BAKARRAREKIN ARTXIBOKO KUTXAK ZINTEKIN ETA AZALEZTAPENA HORNITZEKO ESPARRU-AKORDIOTik eratorritako kontratuak burutzeko, bere eskaintza ekonomikoan eskaintako aleko prezioetan.

PRIMERO: SELECCIONAR a la empresa "FUNDACIÓN ERAGINTZA", con C.I.F. G-48491872, para la celebración de los contratos derivados del ACUERDO MARCO PARA EL SUMINISTRO DE CAJAS DE ARCHIVO CON CINTAS Y ENCUADERNACIÓN CON UN ÚNICO EMPRESARIO, FOMENTANDO LAS EMPRESAS QUE TENGAN EN SU PLANTILLA PERSONAS CON DISCAPACIDAD, por los precios unitarios ofertados en su oferta económica.

Esparru-akordio honetatik ondorioztatutako kontratu guztientzako urteko gehieneko aurrekontua 6.500 eurokoa izango da,

El presupuesto máximo anual para el conjunto de contratos derivados del presente Acuerdo Marco será de 6.500 euros/año, 21% de I.V.A. incluido

BEZaren % 21 barne (5.371,90 euro, gehi BEZaren % 21ari dagozkion 1.128,10 euro).

Esparru-akordioaren indarraldia LAU (4) URTEKOA izango da, 2016ko martxoaren 1etik edo, esparru-akordioa beranduago gauzatzen bada, egun zehatz horretatik aurrera zenbatuta.

BIGARRENA: Hautatutako enpresa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 156.1 artikuluan adierazitakoaren arabera, Kontratazio Zerbitzuaren bulegoetara joan beharko da; Foruen kaleko 8an daude. Bertara joan beharko da esparru-akordioa agiri administratiboan gauzatzeko; hori guztia, erabaki honen jakinarazpena jaso eta hamabost lanegunetan, gehienez ere.

233.- UDALARENTZAT OSASUNA JAGOTeko ETA ZAINTEKO EGINKIZUNAK BEREGAIN HAR DITZAN BESTEREN PREBENTZIO-ZERBITZUA ESLEITZEA.

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako erabaki-proposamen hau onartu da:

LEHENENGOA.- 2016-02-23an Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako 51. Erabakiaren bidez, GETXOKO UDALARENTZAT OSASUNA ZAINTEKO ESPEZIALITATEAN FUNTZIOAK BERE GAIN HARTZEN DITUEN KANPOKO PREBENTZIO-ZERBITZUA adjudikatzeko izapideak hasi ziren, zenbatekoa urteko 80.000 euro izanik (LAUROGEI MILA euro),

(5.371,90 € más 1.128,10 € del 21% de I.V.A.).

El plazo de vigencia del Acuerdo Marco será de CUATRO (4) AÑOS a contar desde el día 1 de marzo de 2016 ó desde la fecha de formalización del Acuerdo Marco, si esta fuera posterior.

SEGUNDO: La empresa seleccionada, de conformidad con lo indicado en el artículo 156.1 del TRLCSP, deberá comparecer en las oficinas del Servicio de Contratación, sitas en la calle Fueros nº 8, para formalizar el acuerdo marco en documento administrativo, en un plazo máximo de quince días hábiles desde la recepción de la notificación del presente acuerdo.

233.- ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO DE PREVENCIÓN AJENO QUE ASUMA LAS FUNCIONES EN LA ESPECIALIDAD DE VIGILANCIA DE LA SALUD PARA EL AYUNTAMIENTO.

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se decidió aprobar la siguiente propuesta de acuerdo:

PRIMERO.- Por Acuerdo nº51 adoptado por la Junta de Gobierno Local en fecha 23/02/2016 se inició la tramitación para la adjudicación del SERVICIO DE PREVENCIÓN AJENO QUE ASUMA LAS FUNCIONES EN LA ESPECIALIDAD DE VIGILANCIA DE LA SALUD PARA EL AYUNTAMIENTO DE GETXO, por importe de 80.000€ (OCHENTA MIL

BEZaren % 21a barne, eta prozedura irekian kontratatzea erabaki zen.

BIGARRENA.- Hona hemen erreferentziako kontratuaren ezaugarri nagusiak:

- Kontratua 2 (BI) URTETAN egikarrituko da, kontratua sinatzen denetik zenbatzen hasita. Kontratuak segidako URTEBETEKO BI (2) luzapen izan ahalko ditu, eta kontratuak ezingo du 4 (LAU) urte baino gehiago iraun.

- Kontratuaren prezioa, BEZetik salbuetsita dagoena, 80.000 eurokoa (LAUROGEI MILA eurokoa) izango da, hau da, urtean 40.000 eurokoa (BERROGEI MILA eurokoa).

- Kontratuaren kalkulaturako zenbatekoa 160.000 euro (EHUN ETA HIRUROGEI MILA euro) da.

HIRUGARRENA.- 2016 03 04an, lizitazio-iragarkia argitaratu zen BAO, 44. zenbakiarekin.

LAUGARRENA.- 2016-03-22an, Udaleko Kontratazio Zerbitzuko bulegoetan, aurkeztutako proposamenen dokumentazio orokorra jasotzen zuten gutun-azalak ireki ziren jendaurrean; hori egin zen, kontratazio publikoaren arloan indarrean dagoen araudia betez, aplikaziokoak diren udal-xedapenak betez eta aipaturako kontratua adjudikatzeko espedienteko administrazio-baldintza zehatzen pleguetan jasotakoa betez. Lau enpresek aurkeztu zituzten proposamenak lizitaziora:

euros), a razón de 40.000€ (CUARENTA MIL euros) anuales, IVA del 21% incluido, acordándose igualmente proceder a su contratación por Procedimiento Abierto.

SEGUNDO.- Las características principales del contrato de referencia son las siguientes:

- El plazo de ejecución del contrato será de 2 (DOS) AÑOS, a contar desde la fecha de la firma del contrato. El contrato será prorrogable por dos DOS (2) periodos sucesivos de UN (AÑO) cada uno, sin que pueda la duración total del contrato exceder de los CUATRO (4) años.

- El precio del contrato, IVA exento, será de 80.000€ (OCHENTA MIL euros), a razón de 40.000€ (CUARENTA MIL euros) anuales.

- El valor estimado del contrato asciende a la cuantía de 160.000€ (CIENTO SESENTA MIL euros).

TERCERO.- Con fecha 04/03/2016 se publica el anuncio de licitación en el BOB número 44.

CUARTO.- Con fecha 22/03/2016, en cumplimiento de la normativa vigente en materia de contratación pública, así como de las disposiciones municipales que resultan de aplicación y según lo contemplado en los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares del expediente para la adjudicación del contrato de referencia, se procede, en las Dependencias del Servicio de Contratación del Ayuntamiento de Getxo, a la Apertura, en acto público, de los sobres que contenían la Documentación General de las proposiciones presentadas. Las empresas que presentaron proposiciones a la licitación fueron

- ASPY PREVENCIÓN, S.L.U.
- IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO PREVENCIÓN, S.L.
- UNIVERSAL PREVENCIÓN Y SALUD, S.L.U. - UNIPRESALUD
- PREMAP SEGURIDAD Y SALUD, S.L.U.

BOSGARRENA.- Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta aurkeztutako eskaintzak onartu ziren.

SEIGARRENA.- Jarraian, AUTOMATIKOKI EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI dagozkien gutun-azala ireki zen. Hauxe izan zen emaitza:

cuatro:

- ASPY PREVENCIÓN, S.L.U.
- IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO PREVENCIÓN, S.L.
- UNIVERSAL PREVENCIÓN Y SALUD, S.L.U. - UNIPRESALUD
- PREMAP SEGURIDAD Y SALUD, S.L.U.

QUINTO.- Examinada la documentación presentada se admiten las ofertas presentadas.

SEXTO.- Se procede, a continuación a la apertura del sobre que contiene los CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA NO AUTOMÁTICA con el siguiente resultado:

<u>ENPRESA/ EMPRESA</u>	<u>AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA/ DOCUMENTACION PRESENTADA</u>
ASPY PREVENCIÓN, S.L.U.	<ul style="list-style-type: none"> - PROPOSATUTAKO EGUTEGIAREN MALGUTASUNA/ FLEXIBILIDAD DEL CALENDARIO PROPUESTO. - PRESTAKUNTZA / FORMACIÓN. - OSASUN-KANPAINAK / CAMPAÑAS DE SALUD.
IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO PREVENCIÓN, S.L.	<ul style="list-style-type: none"> - PROPOSATUTAKO EGUTEGIAREN MALGUTASUNA/ FLEXIBILIDAD DEL CALENDARIO PROPUESTO. - PRESTAKUNTZA/FORMACIÓN. - OSASUN-KANPAINAK/ CAMPAÑAS DE SALUD.
UNIVERSAL PREVENCIÓN Y SALUD, S.L.U. - UNIPRESALUD	<ul style="list-style-type: none"> - PROPOSATUTAKO EGUTEGIAREN MALGUTASUNA/ FLEXIBILIDAD DEL CALENDARIO PROPUESTO. - PRESTAKUNTZA/FORMACIÓN. - OSASUN-KANPAINAK/ CAMPAÑAS DE SALUD.
PREMAP SEGURIDAD Y SALUD, S.L.U.	<ul style="list-style-type: none"> - PROPOSATUTAKO EGUTEGIAREN MALGUTASUNA/FLEXIBILIDAD DEL CALENDARIO PROPUESTO. - PRESTAKUNTZA/ FORMACIÓN. - OSASUN-KANPAINAK/ CAMPAÑAS DE SALUD.

Jarraian, eta lizitazioa eraentzen duten pleguekin bat etorriz, aurkeztutako dokumentazioa foliotan banatu eta zenbakitu zen, eta aurkeztutako

Seguidamente, y de conformidad con los pliegos que rigen la licitación, se procede a foliar y numerar la documentación presentada y se remite

eskaintzak Langileria, Antolaketa eta Informatika Arlora (Arriskuen Prebentzioa) igorri ziren, balorazio egokia egin zezaten.

la oferta presentada al Área de Personal, Organización e Informática (Prevención de Riesgos), a fin de que realice la valoración pertinente.

ZAZPIGARRENA.- 2016-03-23an, Laneko Arriskuen Prebentzioko teknikariak txostena egin zuen, AUTOMATIKOKI EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI buruzkoa; bertan, honako balorazio hau egin zuen:

SÉPTIMO.- Con fecha 23/03/2016, el Técnico de Prevención de Riesgos Laborales emitió informe sobre los CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA NO AUTOMÁTICA con la siguiente valoración:

	ENPRESA LIZITATZAILEAK EMPRESAS LICITADORAS			
AUTOMATIKOKI EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK/ CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA NO AUTOMATICA	ASPY	IMQ	UNIPRESALUD	PREMAP
Proposatutako egutegiaren malgutasun-irizpidea/ Criterio de flexibilidad del calendario propuesto	1	1	1	1
Prestakuntza-irizpidea/ Criterio de formación	0,5	2	1	0,5
Osasun-kanpainen irizpidea/ Criterio de campañas de salud	1	2	1,5	0,5
GUZTIRA/ TOTAL	2,5	5	3,5	2

ZORTZIGARRENA.- 2016-04-08ko Kontratazio Mahaian, Laneko Arriskuen Prebentzioko teknikariak 2016-03-23an AUTOMATIKOKI EBALUATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI buruz egindako txostenaren berri eman zen. Gero, AUTOMATIKOKI EBALUATU BEHARREKO IRIZPIDEAK jasotzen zituen gutun-azala zabaldu zen; hona hemen lortutako emaitza:

OCTAVO.- En la Mesa de Contratación de fecha 08/04/2016, se da cuenta del informe de fecha 23/03/2016 emitido por el Técnico de Prevención de Riesgos Laborales sobre los CRITERIOS NO EVALUABLES DE FORMA AUTOMÁTICA. A continuación se procedió a la apertura del sobre correspondiente a CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA AUTOMÁTICA, con el siguiente resultado:

	ENPRESA LIZITATZAILEAK EMPRESAS LICITADORAS			
AUTOMATIKOKI EBALUATU BEHARREKO IRIZPIDEAK/ CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA AUTOMATICA	ASPY	IMQ	UNIPRESALUD	PREMAP
Eskaintza ekonomikoa/ Oferta económica (80.000.-€, BEZetik salbuetsita. 40.000.-€ urtean, BEZetik salbuetsita)./ (80.000.-€ exento I.V.A. 40.000.-€/anuales exento de I.V.A.) 55 puntu gehienez/ Máximo 55 puntos	40.000	34.440	27.900	68.000 (kontratuak irauten duen bi urteetarako eskaintza) 68.000 (oferta para los dos años de vigencia del contrato)
Instalazioak udalerritik hurbil egotea/ Cercanía de las instalaciones con el municipio 20 puntu gehienez/ Máximo 20 puntos	BILBO (Morgan kalea, 2A) BILBAO (C/ Morgan 2A)	ERANDIO (Axpeko erribera, 28) ERANDIO (Ribera de Axpe 28)	BILBO (Trenbideko etorbidea, 2-4, beheko solairua) BILBAO (Avda. Ferrocarril 2-4 bajo)	Bat baino gehiago aurkeztu dira, baina BARAKALD O nabarmendu da (Askatasuna etorbidea, 57) Presenta varía pero se subraya BARAKALD O (Avda. Libertad 57)
Proba mediko osagarrien zerrenda/ Relación de pruebas médicas adicionales 5 puntu gehienez/ Máximo 5 puntos	<ul style="list-style-type: none"> - Burdina eta ferritina/ Hierro y Ferritina. - Prostatako antigeno espezifikoa/ PSA. - FOBT edo odolaren presentzia eginkarietan/ FOBT o Presencia de sangre en heces. - Polimerasaren kate-erreakzioa - erreuma-faktorea/ PCR-Factor reumático. - Arrisku kardiobaskularren balorazioa/ Estimación del riesgo cardiovascular. 	<ul style="list-style-type: none"> - Elektrokardiograma/ Electrocardiograma. - Audiometria/ Audiometría - Prostatako antigeno espezifikoa / PSA. - Burdina eta ferritina/ Hierro y Ferritina. - Odolaren presentzia eginkarietan/ Presencia de sangre en heces. - Tonometria 	<ul style="list-style-type: none"> - Elektrokardiograma/ Electrocardiograma. - Proba analitikoak (PASA, FERRITINA eta SIDEREMIA)/ Pruebas analíticas (PASA, FERRITINA y SIDEREMIA). - Tonometria/ Tonometría. - UNIPREGES aplikazio informatikoa/ Aplicación informática UNIPREGES - Kontsulta medikoak/ 	<ul style="list-style-type: none"> - Prostatako antigeno espezifikoa / PSA - Tonometria / Tonometría - Burdina eta ferritina/ Hierro y ferritina - Espirometria/ Espirometría - Elektrokardiograma/ Electrocardiograma.

		/ Tonometría	Consultas médicas. - Osasun- zerbitzuen txartela/ Tarjeta de servicios sanitarios. - Osasun-test osoa/ Test de salud total.	
Arreta medikoa EAeko bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko eskubidea/ Indicación del derecho de atención médica en las dos lenguas oficiales de la CAV 15 puntu gehienez/ Máximo 15 puntos	Ez/No	Bai/Sí Txostenaren eredua erantsi da/ Se adjunta ejemplo de informe	Bai/Sí Ez da txostenaren eredurik erantsi/ No se adjunta ejemplo de informe	Bai/Sí Txostenaren eredua erantsi da/ Se adjunta ejemplo de informe.

BEDERATZIGARRENA.- Baldintza administratiboen pleguko 4 bis atalak honako hau dio:

4. bis.- Ezohiko edo neurritz kanpoko balioak dituzten eskaintzak.

Eskainitako prezioa aurkeztutako eskaintzen batez bestekoa baino % 10 txikiagoa denean, edo lizitatzaile bakarra aurkezten denean, eskaintza lizitazioaren aurrekontua baino ehuneko 25 txikiagoa bada, proposamena ezin dela bete iritziko da balio ezohiko edo desproporzionatuak sartu izanaren ondorioz, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 152. artikuluan ezarritako prozedura hasiko da.

Jarraian, eta administrazio klausulen pleguaren 4. bis atalean ezarritakoari jarraiki (aurreko paragrafoan jaso dena), Kontratazio Mahaiak ez ohiko edo neurritz kanpoko balioak aztertu zituen, eta ikusi zuen UNIVERSAL PREVENCIÓN Y SALUD, S.L.U. - UNIPRESALUD enpresak aurkeztutako eskaintza ekonomikoa egoera horretan erori zela (aurkeztutako eskaintza 27.900 eurokoa da, eta, pleguetako

NOVENO.- El apartado 4.bis del Pliego de Condiciones Administrativas dice lo siguiente:

4. bis.- Ofertas con valores anormales o desproporcionados.

Cuando el precio ofertado sea inferior al 10% de la media de las ofertas presentadas o, en caso de concurrir un único licitador, si su oferta es inferior al presupuesto base de la licitación en más de 25 unidades porcentuales, se considerará que la proposición no puede ser cumplida como consecuencia de la inclusión de valores anormales o desproporcionados y iniciará el procedimiento establecido en el artículo 152 del TRLCSP.

Seguidamente, y de conformidad con lo establecido en el apartado 4.bis del Pliego de Cláusulas Administrativas reproducido en el párrafo anterior, se procede por la Mesa de Contratación al análisis de valores anormales o desproporcionados observándose que está incurso en dicha circunstancia la oferta económica presentada por UNIVERSAL PREVENCIÓN Y SALUD, S.L.U. - UNIPRESALUD (la oferta

parametro objektiboen arabera, 30.676 eurotik beherako eskaintzak neurritz kanpokoak edo ez ohikoak dira). Horrenbestez, hasiera eman behar izan zitzaion Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 152. artikuluan ezarritako prozedurari.

HAMARGARRENA.- Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 152. artikuluan (ezohiko edo neurritz kanpoko balioei buruzkoa) 2., 3. eta 4. ataletan honakoa dago jasota:

2. Adjudikazioan balorazio-irizpide bat baino gehiago hartu behar bada kontuan, baldintza-agirietan adierazi ahalko dira zein parametro objektiboren arabera erabakiko den (hala badagokio) proposamena ezin dela bete, ezohiko edo neurritz kanpoko balioak sartzearen ondorioz. Eskaintako prezioa adjudikaziorako oinarri gisa balio behar duen helburu objektiboetako bat bada, baldintza-agirian adierazi ahalko dira zein mugaren arabera erabakiko den (hala badagokio) proposamena ezin dela bete, ezohiko edo neurritz kanpoko eskaintzen ondorioz.

3. Ezohiko edo neurritz kanpoko proposamentzat jo daitekeen proposamen bat identifikatzean, aurkeztu duen lizitatzaileri entzunaldia emango zaio eskaintzaren balorazioa justifika dezan eta horren baldintzak zehatz ditzan, bereziki gai hauei dagokienez: kontratua betearazteko prozedurak ahalbidetuko duen aurrezpena, azaldutako soluzio teknikoak eta prestazioa emateko dituzun baldintza onuragarri

presentada asciende a 27.900€, cuando según los parámetros objetivos de pliegos están incursas en valores anormales o desproporcionadas las ofertas inferiores a 30.676,50€). En consecuencia deberá iniciarse el procedimiento establecido en el artículo 152 del TRLCSP.

DÉCIMO.- El artículo 152 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, relativo a las ofertas con valores anormales o desproporcionados, dice lo siguiente en sus párrafos 2, 3 y 4:

2. Cuando para la adjudicación deba considerarse más de un criterio de valoración, podrá expresarse en los pliegos los parámetros objetivos en función de los cuales se apreciará, en su caso, que la proposición no puede ser cumplida como consecuencia de la inclusión de valores anormales o desproporcionados. Si el precio ofertado es uno de los criterios objetivos que han de servir de base para la adjudicación, podrán indicarse en el pliego los límites que permitan apreciar, en su caso, que la proposición no puede ser cumplida como consecuencia de ofertas desproporcionadas o anormales.

3. Cuando se identifique una proposición que pueda ser considerada desproporcionada o anormal, deberá darse audiencia al licitador que la haya presentado para que justifique la valoración de la oferta y precise las condiciones de la misma, en particular a lo que se refiere a al ahorro que permita el procedimiento de ejecución del contrato, las soluciones técnicas adoptadas y las condiciones excepcionalmente favorables de que

ezohikoak, proposatutako prestazioen originaltasuna, hornidura egiteko lekuan indarrean dauden lan arloko baldintzei eta enplegua babesteari dagozkion xedapenak errespetatzea, edota estatuko laguntza bat lortzeko aukera.

Prozeduran dagokion zerbitzuaren aholkularitza tekniko eskatu beharko da.

Eskaintza lizitatuak estatuko diru-laguntza jaso izanagatik ohi baino baxuagoa denean, proposamena arrazoi horregatik bakarrik baztertuko ahal izango da lizitatuak egiazatu ezin badu diru-laguntza hori laguntza publikoei buruzko xedapen komunitarioak urratu gabe eman zaiola. Arrazoi horregatik eskaintza bat baztertzeko duen kontratazio-organismoak horren berri eman beharko dio Europako Batzordeari, adjudikazio-prozedura erregulazio bateratuaren mende dagoen kontratu bati buruzkoa denean.

4. Lizitatuak egindako justifikazioa eta aurreko atalean aipatutako txostenak kontuan hartuz, kontratazio-organismoak uste badu eskaintza ezin dela bete ezohiko eta neurritz kanpoko balioak sartzearen ondorioz, sailkapenetik baztertuko du eta adjudikazioa ekonomikoki proposamen merkeenaren aldekoa izan dadila xedatuko du, aurreko artikulua 1. atalaren arabera sailkatutako hurrenkerarekin bat etorritik.

Arestian aipatutakoa kontuan hartuta, eta aurreko artikulua betez, 2016-04-25ean entzunaldi-izapidea eman zitzaion UNIVERSAL PREVENCIÓN Y SALUD, S.L.U. - UNIPRESALUD enpresari, hamar (10)

disponga para ejecutar la prestación, la originalidad de las prestaciones propuestas, el respeto de las disposiciones relativas a la protección del empleo y las condiciones de trabajo vigentes en el lugar en que se vaya a realizar la prestación, o la posible obtención de una ayuda del Estado.

En el procedimiento deberá solicitarse el asesoramiento técnico del servicio correspondiente.

Si la oferta es anormalmente baja debido a que el licitador ha obtenido una ayuda de Estado, sólo podrá rechazarse la proposición por esta única causa si aquél no puede acreditar que tal ayuda se ha concedido sin contravenir las disposiciones comunitarias en materia de ayudas públicas. El órgano de contratación que rechace una oferta por esta razón deberá informar de ello a la Comisión Europea, cuando el procedimiento de adjudicación se refiera a un contrato sujeto a regulación armonizada.

4. Si el órgano de contratación, considerando la justificación efectuada por el licitador y los informes mencionados en el apartado anterior, estimase que la oferta no puede ser cumplida como consecuencia de la inclusión de valores anormales o desproporcionados, la excluirá de la clasificación y acordará la adjudicación a favor de la proposición económicamente más ventajosa, de acuerdo con el orden en que hayan sido clasificadas conforme a lo señalado en el apartado 1 del artículo anterior.

Teniendo en cuenta lo anterior, y en cumplimiento del artículo anterior, el 25/04/2016 se da a la empresa UNIVERSAL PREVENCIÓN Y SALUD, S.L.U. - UNIPRESALUD trámite de audiencia para que, en el plazo de 10

laneguneko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, eskaintzaren balorazioaren justifikazioa idatziz aurkez zezan, baldintzak zehaztuta.

HAMAİKAGARRENA.- 2016-05-04an, aipatutako espedientean aurkeztutako eskaintza justifikatzeko agiria aurkeztu zuen UNIVERSAL PREVENCIÓN Y SALUD, S.L.U. - UNIPRESALUD enpresak. Agiri hura Laneko Arriskuen Prebentzioko teknikariari igorri zitzaion, justifikazioaren egokitasunari buruzko txosten tekniko egin zezan.

